

# Aretxagazeta

Aretxabaleta  
1995eko martxoak 23

**L**iburutegiaren  
30. urteurrena

**G**regoriano  
korua

**M**iriam Urkia,  
XUXEN  
programako  
sortzaileetariko  
bat



**BERBARI, euskeraren  
erabilera bultzatzeko  
hitzarmena**

# Jose Aranzabal



## SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktorea, 2  
San Andres auzoa.  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 18 92

**FAGOR** 

Banatazile ofiziala



## ELEKTRATRESNAK

Iturriotz, 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 16

TB • BIDEO • HI-FI • ELEKTRAGAILUAK

## Loramendi Kultur Elkarteak ezagutzen duzu?

Miren Unzueta  
(Ikaslea)

Bai, ezagutzen dut, baina ez nago oso informatuta egiten dituzten ekintzetaz.



Lander Urzelai  
(Ikaslea)

Bai, ezagutzen dut baina ez larregi. Horrelako Kultur Elkarte bat egotea ondo iruditzen zait, ekintza ezberdinak antolatzen dituztelako.



Jose Angel Antxia  
(Langilea)

Bai, ezagutzen dut eta iritzi ona daukat. Euskeraren alde lan handia egiten duela iruditzen zait. Antolatzen dituzten ekintzetan ez dut parte hartu denborarik ez dudalako.



Nerea Altube  
(Ikaslea)

Bai eta ondo iruditzen zait herrian euskera bultzatzen duen talde bat egotea. Noizbaiten parte hartu izan dut.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultur sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

## ESKUTITZAK

### Autopista loratu baino lehen

**U**daberrian sartu berri gara, haize arrotzak ekarritako zorigaitzeko hazia ernetzeko garai egokia, ongizate ororen landare suntsitzailea dakarrena berau.

Historia beltzaren fragmentoa dirudi Autopistarenak, ez da gutxiagorako. Landare horren sustraia eta lorea ez baitira guretzako, are gutxiago fruitua.

Jakina da Autopistak, elkartzen dituen poloak soilik indartzen dituen eta adierazgarria beraz gure bailararen "pasabidea" papera. Kanpoko eta bertako "buruzahagiek" marra zuzenaren legeaz jokatzen dute oraindik, garapen gunez kanpoko interesak ahaztu eta egoera sobredimensionatuak sartuz.

Kontuak kontu, ez da hau Autopistaren aurkako eta alternatiba posibleen aldeko

argudioak azaltzeko espazioa, honen inguruan Aretxabaletako herriak erakutsi duen erantzun hotz eta jarrera pasiboa esnarazi nahi genuke. **HARAN BIZIA** bailarako herritarren plataformak, bertako interesen defendatzaile gisa herria informatzeko gonbidapena luzatu du, horretarako beharrezkoa dena edonoren eskuan jarritz, hori bai, administrazioak xede hortan erabili dizkigun gure 100 millioiak ez dauzkagu, zer egingo zaio ba.

Iosu Sarasua



## Liburutegiaren 30. urteurrena

Liburutegiari ere heldu zaio bere 30. urteurrena. Hau dela eta, ekintza berezi batzuk antolatu dira, apirilaren 3tik 11ra bitartean.

Egitaraua ondorengo hau izango da:

**Apirilak 3**, astelehena, arratsaldeko 5etan **Enkarni Genuak** "Herensugea" txotxongilo obra eskeiniko du 4tik 10 urte bitarteko haurrentzat. Ekitaldia liburutegian izango da.

**Apirilak 7**, eguakotxa, arratsaldeko 7etan **Lubaki Bandak poesia emanaldia** eskainiko du, hau ere liburutegian izango da eta nahi duten lagun guztientzat zuzendua dago.

**Lubaki Banda** idazle gazteen talde bat da. Bere ahotsa ezagutzera atera beharrean aurkitu du bere burua, jendearen sentsibilitatea aldatu nahi du.

**Apirilak 3tik 7ra** bitartean, **Udal Liburutegiko liburuen erakusketa** izango da Euskal Txokoan.

**Apirilak 10, 11, eta 12**, ilustratzaileen erakusketa izango da Astixaren eskutik.

**Apirilak 11**, martitzena, Sarasua anaiek, Luis Lekunberrik pianoz lagundurik, "**Fauna txiki bat bertso berritan**" eskainiko dute. Ekitaldia arratsaldeko 7etan izango da, hau ere liburutegian.

*Animatu zaitetze ekintza politikak daude liburutegian eta.*

**Oharra:** Hemendik aurrera liburutegiaren ordutegia ondorengo izango da: Goizez: 11etatik-ordu batetara. Arratsaldez: 5etatik-8etara.

## ANTZERKI ASTEA

Kurtzebarri eskolak **martxoak 23, 24, 25 eta apirilaren 3, 4, 5, 6** antzerki astea antolatu du. Egun horietan zehar eta arratsaldeko 6retatik aurrera gurasoendako emanaldiak izango dira. Gainera nahi duten Atxabaltar guztiak ere sarrera txiki bat ordainduz gero antzerki lanak ikusi ahal izango dituzte.

## LITERATUR ASTEA

**Apirilaren 3, 4, 5, 6, eta 7an**, eskola orduetan Kurtzebarri ikastetxeko maila guztiak harremantant jarriko dira, irakurritako liburuen inguruan landutako hainbat prozedura elkar trukatzu.

Aste honetako muina eta ekintza aipagarria **IRAKUR MARATOIA** da, astearte 4an ospatuko da. Ekimen hau goizeko 9retan hasi eta arratsaldeko 7etan bukatuko da. Eskolako ikasle, irakasle ta gurasoez gain Atxabaltako talde eta biztanleek parte hartuko dute.

## KONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8


Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO

BERALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78

ARETXABALETAKO


## Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24

Tfnoa: 79 19 71

## BASTER-ALDE JATETXEA



SASOIKO JAKIAK

GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETAKO

## MAITE ILEAPAINDEGIA

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05

ARETXABALETAKO

## GEMES

EPILATERM

Min gabeko depilazioa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18

ARETXABALETAKO

## ARETXAGAZETAREN BATZAR NAGUSIA

### Batzorde berria sei lagunek osatzen dute

Urtero moduan aurten ere Aretxagazetaren batzar orokorra egin berri da. Joan den martxoaren 17an, eguakotxa, egin zen Udaletxeko Pleno Aretoan. Batzarrean jorratu ziren gaiak ondorengoak izan ziren:

- 1.- Iazko batzar orokorraren onarpena.
- 2.- 1994ko aldaketen azterketa.  
(Langilegoarena, formatoa, maketazioa, diseinua, etabar)
- 3.- 1994ko balantze eta kontuaren azterketa eta onarpena.
- 4.- Zuzendaritza-Batzordearen aldaketa eta onarpena.
- 5.- Eskari eta galderak

Zuzendaritza-Batzordetik Inaxio Garro, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Nati Abasolok irten egingo dute. Hauek ordezkaturiko dituzten lagun berriak ondorengoak izango dira:

**Arantzazu Abasolo**  
**Imanol Aginagalde**  
**Miren Eraña,**  
**Iosu Urkia**  
**Xabin Arriola**

Hauetaz gain lehengo batzordetik **Marta Madinabeitia** gelditzen da eta beraz sei lagunek osatuko dute batzorde berria.



Gaztetxoak haritza landatzen

## ZUHAITZAREN EGUNA

Urtero moduan Atxabaltan ere zuhaitzaren eguna ospatu zen martxoaren 16an. Udalak bultzaturik 34 haritz landatu ziren guztira, ez da ez zifra makala. Haritz hauek landatzen Kurtzeberri Eskolako neska mutikoak aritu ziren. Aitzurra hartu eta fin fin hantxe zuhaitza landatzen. Zuhaitz guztiak haritzak izateak ere badu bere arrazoia, Aretxabaleta toponimikoki haritz hitzetik datorren hitza bait da, aurreko mendeetan harizti mordoia omen zegoen Atxabaltan, orain ala ez bada ere.

Trenbideko pasealeku berrian landatu ziren haritz guztiak eta orain pasealekua zuhaitzez beteta ageri da.

Egun honek udaberriarekin lotzeaz gain, haurrek naturarekiko kontzientzia hartzea ere badu helburutzat eta bide batez zuhaitzak naturan duen garrantziak ohartarazi.

JANTZI DENDA

# ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETA

**SHOT!**  
grabaciones

SHOT! grabaketak S.L.  
Araba Etorbidea, 3-2. solairua  
Eskatu Pabiloia  
☎ 943-79 37 51



ARRASATE

Gipuzkoa

CONSTRULAN  
ARQUERO ANAIK

Indusketa eta  
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11  
Tfno eta faxa: 79 01 51  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

# Gregoriano korua



Gregoriano korua Oñatiko Santa Ana Antzokian

Gregoriano koruak kantaldi polita eskaini zuen martxoaren 18an Oñatin, Santa Ana Antzokian, izan zen kontzertuan.

**Aretxabaleta, Samaniego** eta **Araba abesbatzeko** zenbait kidek osatzen duten talde hau **Ismael Fernández de la Cuesta**k bultzaturik sortu zen.

Esan beharra dago talde hauek zenbait sari jaso dituztela, Gregoriano sailean, parte hartu duten hainbat sariketetan, Tolosakoan esaterako.

Dagoeneko taldeak Aretxabaleta eta Salamankan egin ditu bere agerraldiak, izugarriko arrakasta lortuz. Etorkizunari begira ba dute zenbait asmo: Zarautz, Donostiako Hamabostaldia, eta Madrilen ospatuko den Nazioarteko Gregoriano kongresoan parte hartuko dute, besteak beste. Azkenik diska bat grabatu dute eta Estatu Batuetara jira bat ere hor dago.

Taldearen zuzendaria, esan bezala, Ismael Fernández de la Cuesta da, Madriliko Kontserbatorioko Katedratikoa eta Kantu Gregorianoan Doktoratua, esan behar bestalde Ismael Fernández de la Cuesta izan zela Siloseko Gregoriano diska famatuaren zuzendaria.

## Akanpada Leixargaraten

Loramendiko **Soloik solo** gazte taldeko 26 lagun Leixargarateko aterpean egon ziren astebukaeran, martxoaren 25etik 26ra bitartean. Ilargi bete aprobetxatuz eguakotx gauean igo zuten 9 t'erdia aldera. Majo pasatu zuten euskararen inguruan. Tarte hau aprobetxatu nahi dute lerro hauetatik, 15, 16 eta 17 urteko gazteei taldera hurbiltzeko esateko.



Soloik solo taldea Leixargarateko refugioan

## Kiroldegiko leihoak bota zituen haizeak



Argazkian ikusten den moduan haize zakar batek piztinako leihoak bota zituen martxoaren 11an. Hurrengo egunean egurrezko olak jarri zituzten estalki modura eta martxoaren 21erako leiho guztiak ipinita zeuden.



## GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

## GALARTZAKO DORRETXEA



Galartzako Dorretxea dotore dotore dago

### Berrizteko obrak amaiturik daude

Duela urte batzuk Galartzako Dorretxea erre zen. Orain berriz berrizteko obrak egin dira eta dagoeneko amaituta daude. Hormak finkatu dira, teilatua eraiki eta orokorrean eraikuntza osoaren erreabilitazioa egin da. Barrutik porlanezko pisuak egin dira. Orain barrualdea hornitzea gelditzen da, baina oraindik ez da barruan ezer egingo dorretxea zertarako erabiliko den jakin artean.

Dorretxea konpontzeaz gain, inguruan elektrizitate, telefono eta ur instalazioak sartu dira. Oraindik Udalak ez daki zertarako erabiliko den dorretxea.

Hori bai, ez zaitezte dorretxea ikusi gabe gelditu oso polita gelditu da eta.

## Durana kalea berritzeko proiektua

Durana Kalea egin eta hilabete gutxitara hainbat apurketa sortu ziren kaleko plaketak hondatzen zirelako. Hurrengo bi urteetan, neguko izozteen eraginez eta kaletik pasatzen zen trafikoaren eraginez jakin izan da hondatzen dena plaketa ebatzen duen mortairua dela. Beraz, mortairua apurtzen da, plaketa pixkat jeitsi egiten da eta azken honek malgutasunik ez duenez apurtu egiten da. Guzti honen ondorioz izugarriko putzuak sortu dira Durana kalean.

Durana kaleak berrizteko premia galanta du eta hortaz proiektu bat egin da kalea berriz konpontzeko. Proiektu honek trafikorako erabiltzen den zatia bakarrik ikutuko du, ez ordea espaloia. Proiektuaren arabera kalearen itxura superfiziala oraingoa bezalakoa izango da.

Obraren aurrekontua, 13.900.000 milioitakoa da. Proiektua udaletxeko komisioak onetsia izan da eta obrak hauteskundeak pasatu ondoren hastea nahi da. Andramaixetarako bukatuta egongo dela uste da. Bitartean kalea trafikoari itxirik egongo da.



Durana kaleko zuloak porlanez estalita daude

# URBALTZ



## TABERNA

Mitarte 21, behea  
Tfnoa: 79 79 79  
ARETXABALETA



Lurrindegia  
Opari- denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Izozkiteki-Gozotegi  
IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETA

# Jauregi

~~Okindegia~~

Otalora, 10  
Aretxabaleta

# MENDIOLA

## ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
Tfnoa: 71 43 45  
ESKORIATZA

# ANGELINES



Autozerbitzua

Mitarte, 16 ☎ 79 61 42

# IZOTZ

## TABERNA

Mitarte, 16  
☎ 79 73 65

## L eizarragaren Itun Berria

Itxura guztien arabera, Euskal Herritik kanpora geratuko da atzo Londresen enkantean jarritako **Leizarragaren "Jesus Christ Gure Jaunaren Testamendu Berria-ren"** lehen edizioako alea. Arabako Sancho el Sabio Fundazioaren ordezkariarekin lehia estuan aritu ondoren, erosle anonimo bat egin da obraren jabe, 166.500 libranen truke.

*Egunkaria  
(95-03-16)*

## Poloniarrak euskera ikasten

Zornotzako barnetegiak Poznan-go Unibertsitateko bederatzi ikasle poloniar hartu ditu urtarrilean zehar mintzamina lantzeko. Euskara maila polita ekarri dute, izan ere Polonian Eguzkiñe Arbulu baitute irakasle. Haietako bat EGA agiria-rekin itzuli da. Egonaldi hau EGA Bizkaiko Foru Aldundiak eta Poznango Gobernuak duten hitzarmenari esker egin ahal izan da.

*Berripapera  
(1995eko martxoa)*

## Mikel Laboak

Omenaldia jasoko du aurtengo Korrikan. Karia honetara bere bizitzari buruz hainbat aipamen dakartzan liburua kaleratu du AEK-k. Pello Urzelai kazetariak osatu du biografia, Jose Luis Zumeta margolariak ilustratu du, eta iritzi sorta bat dakar: Xabier Lete, Jose Antonio Arze, Joseba Sarrionandia, Xabier Montoia, Manuel Maria, Raimon, Itxaro Borda eta Bernardo Atxagarenak dira artikulua.

*Argia  
(95-03-12)*

*Azken aldi honetan hautsa harrotu du Araban euskara zertan den aztertuko duen inkesta egiteko ardura Euskal Herriaz kanpoko enpresa bati eman izanak, beste arrazoi batzuen artean, inkestaren arduradunak Katalunian ere arazoak izan zituelako. Akaso ez da gutxiagorako izango. Baina ez dut uste inkesta hori honek edo harek egitea denik arazorik larriena; txikieria ere badela esango nuke.*

## Arabain baino ez txakurak ortosik?




### Joseba Urkia

#### Itzultzailea

*Inportanteagoa iruditzen zait Gasteizko euskaltegietan halako marru eta putzik egin gabe ahalegin handia eginda ikasten ari diren ikasleak, eskolara euskaraz ikastera doazen haur guztiak, euskararen inguruko taldeetan (Bagare, Geu Gasteiz...) lanean ari den hainbat pertsona -osotasuna hartuta gutxi badira ere- gogoan izatea, eta Arabako giroa, antza, hain kontrakoa izanda, euskaraz bizi nahi izateko adorea zergatik duten aztertzea; horiei eman beharreko aupada indartzea.*

*Gehienetan etxetik lanera eta lanetik etxera joan-etorrian, ez da Gasteizko benetako egoera zein den ezagutzeko aukera haundirik izaten, baina egia da kalean haur euskalduna hizketan entzunda, buruari disimuloz (edo belarrirei entzun-minez) buelta-erdi ematen diedala. Dena dela, ez gaitezen itsutu, eta egoera larria Arabakoa baino ez dela pentsatu. Bere txarrean, hobeto al daude Bilbon, Baionan edo Tuteran? Aretxabaletan bertan ez al da euskara ikasi eta euskaraz bizi izatearen alde ordu hondar batzuetako ahalegintxoak egiteko bat ere gogorik ez duenik, kontra dagoela esan barik? Zer da larriagoa?*



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

## GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

## ZUHAITZ

jatetxea



**Zenbaki**

Aholkularitza

Basabe Industrialdea  
**Aretxabaleta**

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99



# Miriam Urkia, XUXEN, zuzentzaile ortografikoaren sortzailetariko bat

**B**este hizkuntza batzutan aspalditik ezagutu izan dira ordenagailu bidezko zuzentzaile ortografikoak. Duela urte batzuk, euskarazko zuzentzaile ortografiko bat egitea pentsatu zen. Hau aurrera eramateko 3 zentru ezberdin elkartu ziren, UZEI, Donostiako Informatika Fakultatea eta azkenik Hizkia, Baionako enpresa bat. Hemendik sortu zen, **XUXEN**, zuzentzaile ortografikoa programa. Dagoeneko bada urte erdi kaleratu zena.

XUXEN programan, Euskal morfologia osoa sartuta dago, hori bai, euskera batua bakarrik ezagutzen du, beraz, Atxabaltako aditzak ez ditu ezagutzen. Hortaz, ordenadorez idatzitako testu bat zuzendu nahi izan ezker, XUXEN programak hitz bat ezagutzen ez duenean gelditu egiten da. Gelditze hori bi arazoigatik izan daiteke, alde batetik hitza ezezaguna egiten zaiolako edo eta bestetik hitz hori gaizki dagoelako. XUXEN-ek 60.000 forma ezagutzen ditu eta esan beharra dago inolako informatika ezagupenik ez duela eskatzen erabili ahal izateko.

**Miriam Urkia** dugu, **XUXEN** programako

**Miriam Urkiak Donostiako UZEI zentruan lan egiten du. Bertan 11 urte daramatza lanean. UZEI, terminologi eta lexikogintza zentru bat da. Bertan, alde batetik lexikografia, hau da, hiztegi arrunta eta beste aldetik hiztegi berezia, hau da terminologia lantzen da. Miriam-ek lexikografian lan egiten du, hau da, hiztegi arrunta lantzeko alorrean.**



sortzailetariko bat. Zazpi urte daramatza programan lanean hizkuntzalari moduan. Miriam-ek kontatu digunez *“oso lan polita izan da, gauza berri askotaz jabetu naiz. Egin genuen lehen lana analizatzaile morfologikoa izan zen. Ondorengo lana guzti hau ordenagailuan sartzea izan zen. Horretarako oinarri giza Ibon Sarasola eta Kintanaren hiztegiak eta Euskaltzaindiko hiztegi batuko batzordea erabili genuen. Horrela apurka apurka hiztegia osatzen joan ginen”*

Beste helburu batzuen artean jendea ondo idazten ohitzea bultzatu nahi du XUXEN programak eta ustez arrakasta haundia izaten ari dela esan digu Miriam-ek.

Bukatzeko aipatu behar, UZEI-ek atera duen, **“Atzekoz Aurrera”** hiztegi elektronikoa. Atzekoz Aurrera hitz bukaeren hiztegi bat da. Hemen ere beste 60.000 forma

daude, eta hiztegia azkenengo letratik ordenatuta dator. Honek atzizkiei buruzko lan bat egiteko edo bertso errimatarako, e.a. balio du. **“Atzekoz aurrera”** bai liburu erara eta baita diskan ere aurki daiteke.


**JOSU**  
**HARATEGIA**  
URDAITEGIA-  
GOZOTEGIA  
KROASANTEGIA  
“JANARI PRESTATUAK”  
Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

**ARETXABALETA**  
**ITURGINTZA**  
Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

**Amaia-Berri, S.L**  
Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia  
Otalora, 18 behea  
Tfno-Faxa: 77 06 49  
ARETXABALETA

**Artano**  
**Taberna**  
Herriko Enparantza  
**ARETXABALETA**

FOTO  
*Urkiola*  
Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

**18**  
**KELER**  
**FELIX ARRESE**  
Edari Banatzailea  
Industrialdean  
Tfnoa: 79 60 65  


## BERBARI, euskeraren erabilera bultzatzeko hitzarmena Aretxabaletan

Datorren asteazkenean, martxoak 29, arratsaldeko 7etan Udaletxeko pleno aretoan, Aretxabaletan euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatuko da. Ekitaldi publiko honetan, hitzarmenean sartuko diren talde ezberdinetako ordezkariak parte hartuko dute.

Aretxabaletako Udalak eskatuta SIADECO enpresak herriko euskararen egoerari buruzko azterketa soziolinguistikoa egin zuen. Hemen ikusi zen, gaur egun Aretxabaletako euskeraren egoerak ezagutzari dagokionez onera egin duela eta erabilerari dagokionez ere nahiko erabiltzen dela. Hau da, Aretxabaletan %59,6ak daki euskaraz eta % 45ak gutxi gorabehera erabiltzen du. Hau honela izanik, HITZARMEN-GINTZA jorratzea proposatzen zuen. Hau da, EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO herriko elkarte nahiz taldeen arteko Hitzarmena garatzea. Herriko talde ezberdinek (kirol, kultur, gazte, erlijio, gizarte mugimendu...) beren barne funtzionamenduan, kanpora begira antolatzen dituzten ekintzetan e.a., euskeraren erabilera bultzatzea.

Talde bakoitzak bere borondatez hartuko duen konpromezua litzateke BERBARI izenaz identifikatua izan den hitzarmena.



BERBARI hitzarmenean sartuko diren talde batzutatako ordezkariak

Talde desberdinetako kideekin egon gara eta honako hau galdetu diegu:

- Zergatik sartu zarete hitzarmenean?
- Zer hitzarmen mota hartu duzue, eta zergatik?

### Ortzadar Taldea

Ordezkaria:  
Peio Gomez



- Gure helburuetan euskeraren helburua sartuta dago eta guk ekintza guztiak euskeraren alde egin nahi ditugu. Horrela gure helburuetako bat betetzen dugu.
- D hitzarmena, dena euskeraz egin daitekeelako.

### Margo lagunak

Ordezkaria:  
Mikel Arroiabe



- Guri garrantzitsua iruditzen zaigu euskera bultzatzea eta hitzarmen hau euskera bultzatzeko modu bat da. Horrela talde bakoitzak bere eremua euskalduntzen du.

- D hitzarmena, gure taldean nahiko euskera maila altua dagoelako eta hori mantentzea nahi dugulako.



Hitzarmena identifikatzen duen logotipoa

Elkartek euskarari dagokionez egoera berdinean ez daudenez konpromezuak ere talde bakoitzari egokituak izango dira. Horregatik hiru konpromezu mota daude, **A, B, D**. Nolabait esateko A litzeteke baxuena, B erdi mailakoa eta D altuena. A hitzarmenak eskatzen duena da euskararen erabilerari sarrerak ematen hastea. Entitateak antolatzen dituen ekintzetan euskara ere erabiltzen hasiko da. Beraz, euskarari atak zabalduko zaizkio. B hitzarmenak eskatzen duena da, euskerari lehentasuna ematea eta D hitzarmenak talde horren funtzionamendua euskara hutsez izango dela dio.

Hasiera batetan 3 urtetako epea jarri da eta honen amaieran berraztertu ahal izango da. Guzti hau aurrera eramateko talde bakoitzak euskara arduradun bat aukeratu du, ordezkari moduan.

Guzti hau koordinatzen Loramendi Kultur Elkarteke Miren Iriondo ari da, **Loramendi K.E.ren eta Udalaren laguntzarekin.**

Hitzarmenean sartuko diren taldeak hauek dira:

\* **Kirol taldeak:** MURRUKIXO M.T., ZARAIA M.T., U.D.A., PEÑA ZUBIZARRETA, ALMEN KIROL ELKARTEA.

\* **Kultur Taldeak:** ARLUTZ XAKE TALDEA, AKORDEOI ESKOLA, ABESBATZA, LORAMENDI DANTZA TALDEA, OKILA TALDEA, ARETXAGAZETA, BUSTINTXO KERAMIKA TALDEA, MARGO LAGUNAK, TXALAPARTARIAK.

\* **Gazteak:** ORTZADAR, GAZTETXEA.

\* **Gizarte mugimenduak:** HIRUGARREN MUNDU TALDEA, ARATZ ELKARTEA, AMNISTIAREN ALDEKO GESTORA, TALDE ANTIMILITARISTA.

\* **Partidu Politikoak:** EAJ-PNV  
EA  
HB  
PSE-EE

Esan beharra dago zenbait taldek oraindik erantzunik ez duela eman.

## Zaraia Mendi Taldea

Ordezkaria:  
José Luis Mulas



a) Atxabaltan bizi garelako eta hemen euskeraz egiten ahalegindu behar garelako.

b) Oraingoz D hitzarmena aukeratu dugu baina gerora d hitzarmenerantz abiatzeko asmoz.

## Amnistiaren Aldeko Gestora

Ordezkaria:  
Azuzena Cardenal



a) Garrantzitsua iruditu zaigu eta euskeraren aurrean edozein hitzarmen hartu behar dela pentsatzen dugu.

b) B hitzarmena. Maila horretan gaudela uste dugu eta.

## U.D.A.

Ordezkaria:  
Iñaki Antxia



a) Atxabaltako euskera bultzatzeko. Konturatu gara Atxabaltako euskara nahiko maila bajuan dagoela.

b) A hitzarmena hartu dugu, guk euskaraz jakin badakigu baina ez gara alfabetatuak.

## Abesbatza

Ordezkaria:  
Marga Garmendia



a) Horrelako kolaborazio bat begi honez ikusten dugu, euskera bultzatzeko bide bat izan daitekeelako.

b) Momentuz B hitzarmena hartu dugu erdi bide moduan eta aurrerantzean saiatuko gara hortik gora egiten.

## Okila Taldea

Ordezkaria:  
Pello Olabe



a) Garrantzitsua iruditzen zaigu horrelako hitzarmen batean sartzea. Honez gain Okila Taldea lehengo Beinke Taldetik sortua da.

b) D hitzarmena aukeratu dugu.

# Pelotan gogor



Lasagabaster eta Bartolome Antzuolarren aurkako partiduan garaile atera ondoren

Atxabaltako pelotariak gogor ditugula esan behar da. Momentu honetan Liga Vasca delakoa jokatzen ari dira. Hasiera batetan Deba Garaiko elkarteen kontra jokatuko dute, Arrasate, Antzuola, Eskoriatza eta Oñati. Gero klasifikatuek Deba Behekoen kontra jokatuko dute. Joan den martizenean hilaren 14an antzuolarren kontra lehiatu zituzten indarrak.

Emaitzak ondorengoak izan ziren:

Infantil mailan:

**Bartolome-Lasagabaster 18**  
Antzuola 7

Jubenil mailan:

**Uriarte-Apraiz 8**  
Lizarralde-Iztueta 22

Senior mailan:

**Errasti anaiak 22**  
Galeano-Aranburu 1

Pasatu den astebukaeran aldiz, hilaren 19an Arrasaten jokatu

zituzten partiduak. Emaitzak ondorengoak izan ziren:

Infantil mailan:

Lazkano-Belategi 1  
**Bartolome-Lasagabaster 18**

Jubenil mailan:

Zugasti-Uribarren 22  
**Uriarte-Apraiz 8**

Senior mailan:

Errasti-Zuazubizkar 11  
**Errasti anaiak 22**

## FUTBOL EMAITZAK

### PREFERENTE

U.D.A.-OIARTZUN 0-0

### 1º ERREGIONALA

ILINTXA- U.D.A. 2-4

### 1º JUBENILA I

ARETXABALETA-SPORTING HERRERA 6-1

### JUBENILAK II

ARETXABALETA-KOKKAS 2-6

### NESKAK

U.D.A.-ZUMAIKO 3-1

## SASKIBALOI EMAITZAK

### KADETEA EMAKUMEZKOAK

-A Taldea-

ENGLISH-ALMEN 49-36

-B Taldea-

ARRASATE-ALMEN 46-37

## EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
☎ 79 48 77 ARRASATE

## DOIKALSE

Elektroerosioa  
Zuzendua

Poligono Basabe C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

## J. ALTUNA


Zurgindegia

Sukalderako  
altzariak

Basabe Poligonoa, A-2-3  
☎ 79 72 55 Aretxabaleta

## ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- \* JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- \* MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- \* IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- \* MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- \* ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- \* LEINTZ-ROSI 79 78 63
- \* ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43



## HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57

## TOLDOS LETE

Kataide Poligonoa  
14 Pabiloia ☎ 79 23 83

## GUREA TABERNA JATETXEA

Durana Kalea  
Tfnoa: 79 20 64

## Eski irteera

Murrukixo Mendi-Taldeak datozen apirila 1 eta 2rako eski irtera antolatu du. Zapatuan **Gabarnien** eskiatuko da eta domekan **Luz Ardi-denen**. Irteera apiliraren leian izango dute goizeko 4:30tan, domeka arratsaldean etxera bueltatzeko.

Autobusa, lo egitea, gosaria, afaria eta 2 forfait 8500 pezeta izango dira. Pertsona bakoitzaren kontu gelditzen da, eguneko segurua (9 fran-



ko), eguneko alkilerria (30 franko) eta bazkaria.

Dagoeneko plaza guztiak hartuta daude. Jendea apuntatzeko azkar ibili da, horrelako aukerak ez dira askotan izaten eta.

**Ondo ibili!!!**

## Arlutz saskibaloi txapelketa



Arlutz saskibaloi txapelketan parte hartzeko epea zabalik dago. Aurten gainera sekula baino lehenago zabaldu da epea eta apirilaren leian hasiko da txapelketa jokatzeko. Lehenago hastearren arra-

zoia gero futbito txapelketa dagoelako da. Oraindik apuntatzeko epea zabalik dago baina apuntatu nahi izanez gero azkar ibili zaitezte, apuntatzeko azken eguna martxoaren 25a da eta.

Orainarte sei talde apuntatu dira eta ondo-ondokoak dira:

- 1.- D.D.k.
- 2.- Peña Manolin
- 3.- Lexe Gurelesa
- 4.- Joxe Augus
- 5.- Smorfilies Krokanta
- 6.- Peña Zurito

## Roberto Etxeandia, "satisfakzio haundia ematen diit futbolak"



Gaztetan Almenen eta gero U.D.A.ko jubiletan eman zituen bi urte. Ondoren, Alavesean, bigarren B mailan, aritu zen. Hemendik Bergarara, hirugarren mailara, joan zen eta han bi urtez egon ondoren Atxabaltara etorri zen. Orduetik 9 urte daramatza U.D.A.n jokatzeko.

**• Zer dauka futbolak horrenbeste urtetan hor mantentzeko?**

*Futbola nire gustoko kirola da eta ahal dudan bitartean futboleko jarraitzeko asmoa daukat.*

**• Futbolak eman dizun egun pozgarriena bat...**

*Oso ondo gogoratzen dut hirugarren mailara igo gendueneko eguna. Bermeoren kontra jokatu genuen eta oso egun polita izan zen. Partiduak irabazten direnean dena oso polita da baina galtzen direnean berriz oso tristea izaten da.*

**• Momentu honetan nola dabil U.D.A.?**

*Klasifikazioan oso ondo dabil, jolasten ere nahiko ondo ibili gara kanpo berrian jokatzeari ekin diogun artean. Momentu honetan oraindik ez gara moldatu futbol zelai berrira. Ohitu arte oso gaizki ibiliko gara partiduak irabazteko.*

**• Zer desberdintasun dago lehengo eta oraingo futbol zelaiaren artean?**

*Oso desberdina da, lehengo zelaiaren indarra behar zen oraingoan teknika gehiago. Zelai berrian hanka onak behar dira baloia atzetik joateko.*

**• Anekdotarik...**

*Urte batetan Bergarako golegilerik onena, pitxitxia, izan nintzen nahiz eta defentsan jokatu.*

*Eta anekdota txar bat... Atxabaltan nenbilela, 18 urtekin jendiakin eta neure buruaz haserretu eta alde egin nuen. U.D.A.ko direktibak zigortuta egon nintzen hilabete batetan entrenatu eta jolastu gabe, Stoichkov bezala.*


### ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ☎ 79 32 34  
ARETXABALETA

### BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79



### **EGUZKIGRAF**

**Aldizkariak**  
**Inpresoak**  
**Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA  
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

# Gaztetxo artistak gure eskoletan





## OGI EGILE FINAK

Kurtzebarri Eskolako lehen mailakoek dagoeneko badakigu irakurtzen eta idazten. Hona hemen Ingurune Sozialaren Ezagupenaren txokoa, ogiari buruz egindako lantxo bat. Lana argazkian ageri den **Ane Zubizarretarena** da (lehenengo maila).

- 1.- Lehenengo gari aleak erain.
- 2.- Gero handi egin arte itxaron.
- 3.- Galburuak hori-hori daudenean batu.
- 4.- Gero galburuak eta lastoa banatu.
- 5.- Ondoren gari aleak errotara eraman.
- 6.- Azkenik gari aleak birrindu eta irina bihurtu.

Inaren historia



Nola egiten da ogia?

- 1.- Lehendabizi ura berotu.
- 2.- Gero irinari gatza ura eta legamia bota.
- 3.- Dena ondo nahastu.
- 4.- Ondoren masa estali eta lotan utzi harrotu arte.
- 5.- Azkenik labean sartu.

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
ARETXABALETA

**PORTASOL  
AROSZTEGIA**

Basabe Poligonoa, 1  
Tfnoa: 79 34 84

**INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A.**

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA


*Okindegia - Gazategia  
Panaderia - Pasteleria*

**Aretxabaleta**

Mitarte, 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

*Obrador Propio*



**ARGI-PLASTIC**

Leihoak egiten dira

Axeri, 3 ARRASATE  
Tfnoa: 77 11 30



## Gose Garaia

Batetan, Saldukoan, leihotik behera botatako arto-ogia Iturrigorri ingurura eraman, eta bertan bildutakoen artean banatu ondoren (argazkiko asko bertan), Zubillagatik buelta eman, eta etxera. A ze igande arratsaldea!

Beste batetan Larrinoko jaietara joanda, leihotik ikusten zen ogi ederra eskatu zuten, eta etxekoek, ezer etzutela erantzun zieten. Halako batetan norbaitek besoa luzatu eta baita ogia hartu ere. Gero, lapurketa konfesatu ala ez eztabaidan, goitik behera. Batek (argazkiko batek, noski) honela erantzun ei zuen: "Esaukiena ezin bada hartu, ze konfesauko juau, ba?".

Zenbat aldiz entzun ei dugu 40. hamarkadan jendeak jasandako gosea! Razionamendu kartilak, kuxkur irinez egindako "ogia". Zirudienez "tejemanaje" guztiak balio zuten gosea kentzeko eta horietako bat, koruko kantaria izaten zen. Esaten zuten eta honela diote gaur egun ere, koruen kantetako ez dela ahots ona eduki behar, baizik eta urdail ona. Edozein gauza jateko prest egon behar du kantariak!

Garai hartan, 1944. urtean ari gara, Santa Zezilia egunean meza abestu ondoren (2. Pontifikala) Taberna Berri Jatetxean bildu ziren. Sukalde parean zegoen jangela pribatu batetan, adin guztietako kantariak tril egin zuten, euren urteetako gosea asetu nahiean, eskeini zieten arroz platerkadarekin.

Bazkal ondoren, barruok berdinduta gero, taberna atzekaldera jo zuten, ortura, argazki bidez, etorkizunerako euren pozaren adierazgarri gera zedin.

Goiko lerroan, ezkerretik hasita: R. Olabe, P. Antxia, Lizarralde, T. Gutiérrez, D. Larrañaga, A. Galarraga, J.L. Garziaetxabe, M. Lasagabaster.

Bigarren lerroan: A. Mtez. de Agirre, A. Gabilondo, A. Santamarina, J.L. Izagirre, (ezezaguna), I. Usandizaga, L. Peña, R. Antxia, M. Antxia, B. Otxoa, E. Gutiérrez.

Hirugarren lerroan: D. Iriarte, S. Bengoa, C. Igartua, J. Altube, I. Etxebarria, J. Igartua, L. Leanizbarrutia.

Beheko lerroan: J.M. Antxia, J.L. Antxia, B. Gastañaga, S. Bengoa, J. Olivares, G. Gutiérrez.

Iñaki Urreta Leturiondo  
Aitor Antxia Leturia

## Aztoratu barik gero



J.J. Aretxaga

Udabarria heldu da. Eta udabarriarekin batera odola irakiten hasten dela esaten da, jendea aztoratuta ibiltzen ei da, ez dakit ze haizek jota. Baina gatozen kontu serioetara. Martxoaren 12an **Luis Mari Elkorobarrutiari** bere ikasleek omenaldi antzeko zerbait egin zioten, izan be, gaztea da horrelako kontuetarako. Mondragoeko Kataide jatetxean bazkaria euki zuten, errekonozimendu bazkaria. Egindako lana eskertu gura izan zioten irakasleari; batetik, joan zen abenduan Mondragoen egindako lehiaketan eukitako emaitzengatik eta bestetik orkestra gaztearekin eukitako arrakastarengatik. Plakatxoa emun zioten. Bazkarian bere 25 ikasleak eta euron gurasoak egon ziren, denera berrogeita hamar lagunetik gora. Horrelako gauzak ondo daude animoak emateko, jarraitu lanean.

Batzuek kirola dela diote, burua kantsatzea kirola bada bai. Joan zen astean **Fran Migelek**

Euskal Herriko unibertsitate mailako xake txapelketa irabazi zuen. Orain Galiziara joango da hango unibertsitarien kontra jokaketan. Mariskoa jateko aprobetxatu dezala behintzat.

Roldanenak denak ez dira txarrak izango. Fan zen astean Eibarren egin zen txirrindulari lasterketan **Mikel Roldan** jubenilak konpetibitate saria irabazi zuen, burruka asko eginda gero irabazitako saria. Azkenean hirugarren postuan sartu zen.

Beste honeik ez dakigu ze postutan eta zela sartu ziren, baina meritua daukate, hala ta be, ez zieten konpetibitate saririk emun. Bilbo-Bilbo klasikako 117 kilometroak egin zituzten honako hauek: **Jorge Oiarbide, Ramon Gonzalez, Iñaki Iturbe, Angel Velazquez, Jesus Mari Rosado, Candido Perez** eta konpainia.

**Kapirixo** elkarte berezia da. Herriko ondare historikoa estudietako eta zaintzeko sortutako elkarte da. Domekan Galartzan izan ziren hango dorretxea ikusten. Aranzadiko arkeologa bat gonbidatu zuten dorretxearen historia eta sekretuak kontetako. Oso interesantea izan zela esan didate. Hurrengoan neu be joango naiz.

Entrenadoreak esanda dakit. Herriko neskek irabazi egin zuten futboleko zumaiarren kontra, hiru eta bat. Goleadoreak: **Nerea Etxeandia** eta **Anabel Aranzadi**.

Kontuz udaberriarekin, harrapetan bazaitu, akabo.

## A R E T X A Z O K A

### LANA

- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta ume bat zaintzeko. Harremanetarako deitu 79 63 88 telefonora.

- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientziadun neska prest dago. Deitu, 79 96 10 telefonora. (Maritxu)

- Mota guztietako konponketak egiten dira bizikletetan. Santa Kurtz kalea, 2-5  
Telefonoa: 79 81 90

### ETXEBIZITZA

- Garajea duen etxea alokatzen da (95 m<sup>2</sup>). Sukaldea, komuna, bainu gela, komedorea eta hiru logeladuna. Sukaldea bakarrik dago hornitua beste guztia hornitu gabe.  
Telefonoa: 79 43 51

- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden.. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu letatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.

- Jantzitako etxea alokatzen da. Zaraia, 2 kalea 3. pi-sua.  
Telefonoa: 79 17 08


### SALEROSKETAK

**Atal honetako iragarkiak dohainik dira, beraz, iragarkirik jarri nahi izanez gero deitu ondorengo telefonora:**  
**79 01 05**



F. Jabier Zamora

“Lagunek ”Txiki” ezizenaz ezagutzen naute”.



F. Jabier Zamora “Txiki”

“Txiki”k mekaniko ikasketak egin zituen Atxabaltako profesionalean, Lanbide eskolan. Orain ordean, tabernari bezala lan egiten du “Txiki bar” deritzaion tabernan.

Kontatu digunez, juergak eta kontzertuak asko gustatzen omen zaizkio. Juergista handia dugu beraz.

- **Gogoko duzu tabernari lana?**  
Benoa, disgustatu ere ez dit egiten.
- **Nola hasi zinen holako negozio batetan lanean?**  
Nik mekaniko ikasketak egin nituen baina begira non nagoen orain. Inon lanik ez dagoenez dagoena hartu behar da.
- **Lehenago ibilita zaude tabernari lanetan?**  
Bai, gaztetxean lana egin nuen lau hilabetetan.
- **Zer da lan honetan zailena?**  
Umore txarrez etortzen den jendea jasatea.
- **Eta gehien gustatzen zaizuna?**  
Jendeak sortzen duen giroa.
- **Ondo doakizu negozioa?**  
Aurrerantz doala esan behar.
- **Zer edaten da gehien?**  
Zumoak gero eta gehiago edaten ditu jende gazteak.
- **Zer zaletasun dituzu?**  
Futboleko jokatu, bizikletan ibili eta musika jaialdiak ikusi.
- **Zein musika talde gustatzen zaizu?**  
‘Sociedad Alcoholic’.
- **Zer uste duzu Roldan kasuaz?**  
Dena montaje bat da, norbait dago hor historio guztia eramaten duena eta hori bota behar da hortik. • •
- **Zeri diozu beldur?**  
Hiltzeari eta “makarra” bat labana batekin etortzeari.
- **Jateko zer menu eskatuko zenuke taberna baten?**  
Txuleta eder bat pipar eta patatakin.
- **Nori botako zenioke piropo bat?**  
Neska guztiei.
- **Zure amets bat...**  
Pertsonalki zahartzarora iristea eta bestalde munduan pakea izatea.
- **Non gustatuko litzaizuke bizitzea?**  
Bizi naizen tokian.
- **Joan zera aurten eskiatzera?**



**Inma Migel**  
dugu aurreko alean saritu suertatu zena.

On egin!

ARETXAGAZETako bazkide batek, beste lagun batekin, **Ibarra Jatetxean** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu. **Erantzuna aldizkarian bertan aurkituko duzu, beraz adi adi irakurri ezazu.**

Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean dagoen buzoian) egon beharko dute datorren eguna baino lehen.. Animatu zaitzete eta idatzi afari goxo bat dastatzeko aukera duzue eta.

**IBARRA  
JATETXEA**

Araba Ibilbidea, 29      ARETXABALETA 20550  
Telefona (943) 79 69 86      (Gipuzkoa)

**N**ola deitzen da euskara bultzatzeko Atxabaltan sinatuko den hitzarmena?

a. - Barbari

b. - Loramendi

d. - Siadeco

\* Aurreko aleko erantzuna, “berarekiko jarrera ona azaltzeko” zen.

Erantzun zuzena jakin nahi baduzue adi adi irakurri aldizkaria.

Erantzuna: .....  
.....  
Izena: .....  
Kalea: .....  
Tfnoa: .....

**BERGARA**



**Martxoak, 27**

**ARTEARI BURUZKO BIDEO PROIEKZIOA**  
Arratsaldeko 7,30etan izango da, Kultura Etxean.

**Martxoaren 23tik 31ra**

**ERAKUSKETA**

"Udaletxea historian zehar". Udaletxeko areto naguzian izango da erakusketa.

**Martxoak 24...**

**ERAKUSKETA**

Martxoaren 24tik apirilaren 2ra bitartean **Euskal pilotaren erakusketa** izango da.

**OÑATI**



**Martxoak 24**

**ANTZERKIA**


Gaueko 10,30etan izango da Santa Ana Antzokian, **OIHULARI CLOWN** Taldeak antzeztuta, **MODELO CLOWNTRAPUBLICITARIA**.

**Martxoak 31, eguakotxa**

**KONTZERTUA**

Arratsadeko 7etan Santa Ana Antzokian Oñatiko Musika Eskolako ikasleen kontzertua.

**ARRASATE**



**Martxoak 24**

**ANTZERKIA**

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian **ARTESZENA** antzerki taldearen eskutik "**MEPHISTO**" antzezlana antzeztuko da (euskaraz). Sarrera 700 PTA izango da eta gazte txartelarekin 500PTA.

**Martxoaren 25 eta 26an**

**REIKI IKASTAROA**

Emalea, Ana Otero izango da, Reiki irakaslea da Ana. Lehen mailako ikastaroa izango da..

**Martxoak 24...**

**ERAKUSKETA**

Martxoaren 24tik apirilaren 2ra bitartean egongo da ikusgai. **M. QUEBEKO** eta **L.J. ARRIETA**ren **PINTURA ERAKUSKETA**. Harresi aretoan (Iturriotz 35) izango da.

**Martxoak 27...**

**ERAKUSKETA**

Martxoaren 27tik apirilaren 2ra bitartean Harreman 3. Mundu Taldeak antolatuta **3. MUNDUARI BURUZKO KARTELEN ERAKUSKETA**.

**Martxoak, 30 eguena**

**ZINEA**

Gaueko 9,30etan Amaia Antzokian "**El lado oscuro del corazón**" filmea egongo da ikusgai. Sarrera 300 PTA izango da, gazte-txartelarekin 250 PTA.

**ZARAIA TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**



*Bere bezeroen zerbitzuan*

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

**OFISERVIS**  
Industri Kopiagintza

Cristina Alberdi Garitano

Industrialdea  
Tfno. 943-79 81 66  
Fax 943-79 14 76  
20.550 ARETXABALETA  
(Gipuzkoa)

**DON VIDEO**

**PELIKULARIK BERRIENAK**

Lezamako Merkatal Zentrua  
**ARETXABALETA**

**ARETXABAETA**



**Martxoak 26, domeka**

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Kanpazar-Elorrio-Berriz-Matiena-Apatamonasterio-Axpe-Arazola-Rte. Makatzeta-Elorrio-Kanpazar-Aretxabaleta. Guztira 62 Km.

**MENDI IRTEERA**

ZARAIA M.Taldeak **ibilaldi neurtua** egingo du.

**Martxoak 29, eguastena**

**HITZARMENA**

Iluntzeko 7retan, BERBARI hitzarmena sinatuko da Udaletxeko Pleno Aretoan.

**Martxoak 31, eguakotxa**

**BERTSO AFARIA**

**ANDONI EGAÑA eta SEBASTIAN LIZASOREKIN**, gaueko 9,30etan, Muru-alde elkartean. Menua ondorengo izango da: berakatz sopa, redondua eta gaztaia eta menbrilua. Prezioa: Loramendiko bazkideentzat 2.000pta. gainontzekoentzat 2.500pta. Apuntatzeko, Loramendiren lokalean, Muru-alde elkartean edo Arlutz zein Gurea tabernetan, martxoaren 24a baino lehen.

**Apirilak 1 eta 2**

**ESKI IRTEERA**

Murrukixo Mendi Taldeak antolatuta Gabarnie eta Luz Ardiden-era izango da irteera.

**Apirilak 2, domeka**

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Landa-Arroiabe-Vitoria-Arkaute-Maturana-Ozaeta-Landa-Aretxabaleta. Guztira 67 Km.

**Apirilak 3, astelehena**

**TXOTXONGILOAK**

Arratsaldeko 5etan **Enkarni Genuak "Herensugeak"** txotxongilo obra eskainiko du liburutegian, 4 urtetik 10 urte bitarteko haurrentzat izango da.

**Apirilak 7, eguakotxa**

**POESIA EMANALDIA**

Arratsaldeko 7etan Lubaki bandak poesia emanaldia eskainiko du, liburutegian.

**Apirilak 3tik 7ra**

**ERAKUSKETA**

Udal liburuen erakusketa Euskal Txokoan.

**Apirilak 10, 11 eta 12**

**ERAKUSKETA**

Ilustratzaileen erakusketa izango da Astixaren eskutik liburutegian. Herritar guztiontzat zuzendua egingo da.

**Apirilak 11, martizena**

**IKUSKIZUNA**

Sarasua anaiek Juan Luis Lekunberrik pianoan lagundurik, **"Fauna txiki bat bertso berritan"** eskainiko dute.

**HIIKA IKASTAROA**

Martxoaren 5ean eta apirilaren 1ean hika ikastaroa. Prezioa: 500 pta. Apuntetako: Loramendiko lokalien, Arlutz tabernan edo 77 09 70 telefonora deituz.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**



**Aretxabaleta**

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

**Denetarik**

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkartea 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkartea 79 33 99
- SOS Deiak 088



**AZKENA  
TABERNA**

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57




Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
**ARETXABAETA**

**ITURGINTZA**



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



Maalako Arrabala, 13 ("Okendo Kiroalak" en ondoan) Tfnua: 79 50 78 ARRASATE

**UNITED COLORS  
OF BENNETTON.**